

Hendaian, 1997ko irailaren 26an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua
E. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
B. Oihartzabal,
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
I. Sarasola,
J. M. Satrustegi
eta A. Urrutia
euskaltzainak,
eta
J. L. Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea,
J.J. Zearreta, ekonomi eragilea,
A. Eguzkitza eta
Gidor Bilbao, Exonomastika azpibatza-
dekideak.

Hendaiako udaletxean, 1997ko irailaren 26an, goizeko hamarrak eta bostean, eman zaio hasiera Euskaltzaindiaren hileroko batzarrari. Bildu diren izenak ezkerretako zutabeen jasotzen direnak dira. Ezin etorria adierazi dute, berriz, M. Azkaratek, F. Krutwig-ek, P. Salaburuk eta L. Villasantek.

Aurreko agiria onartzea

Uztaileko bilkuraren agiriari inork ez dio oharrik egin. Horrenbestez, ontzat eman da.

1. Hizkuntza arauak.

*1.1. Exonomastika: Latin eta greziar per-
tsona-izen klasikoaren zerrenda onartzea.*
Euskaltzainburuak A. Eguzkitza eta G. Bilbao jaunei eman die hitza ekarri duten txostenaren azalpena egin dezaten. Eguzkitza jaunak esan du Euskaltzaindiagandik aurreko bileran jasotako agindua betetz, I. Sarasolarekin eta E. Knörrekin bildu direla eta bilera horren ondorio dela orain mahai gainean dugun txostena.

Euskaltzaindiagandik hartutako agindua zen Elhuyar elkarteak eskaini zituen formetara hurbiltzea. Oraingo zerrendan hori egiten saiatu dira, beti ere euskal tradizioa, tradizioirik izan denean, kontuan izanik. Aurkeztutako txostenean izen klasiko horien egokitzapena egiteko irizpideak ematen dira alde batetik, eta izenen zerrenda bat bestetik. Bidea zabalik uzten da nolana ere, goi-mailako erabileran, latinezko eta grekozko nominatiboa bere horretan hartzeko.

Txostenaren aurkezleek esan dute izen mitologikoak ere sartu dituztela beren zerrendan. Hauek aparteko zerrenda batean jasoak datoz, baina Onomastika batzordeak aztertu ez dituzenez, beste bilera batean onartzeko bezala eskaintzen dira.

J. A. Aranak *Eszipion* izena falta dela aipatu du. Sartuko dutela esan zaio.

Tx. Peillenek bere ezadostasuna erakutsi du txostenarekin. Espainolkeria omen da-rio. Ezezagunak edo gutxi ezagunak direnetan jatorrizko forma zergatik ez den errespetatu galdegin du. Sarasola jaunak erantzun dio uztaileko bileran onartu zela horrela egitea. Batzordeak, eman zitzaion agindua betetzea besterik ez duela egin eta orain ezin zaiela, ostera, beste zerbait agindu. Bestalde, jatorrizko formari hurbiletik jarraitu nahi izanez gero, edozeinek duela bide hori zabalik, bi aukera ematen baititu txostenak: forma egokitua eta forma jaso. X. Kintanak ere bere harridura agertu du. Euskaltzaindiak *q*, *v* eta *c* grafiak onartuak dituela izen arrotzetarako baina orain izen klasiko hauetarako beste bide bat eskaintzen duela Euskaltzaindiak.

Charritonek galdegiten du ea zenbateraino jarraitu dion txostenak Elhuyarren lanari. Bilbao jaunak erantzuten dio esanaz lan haren espiritua eta mamia oso-osorik hartu dela. Formulazioa ez zen hain egokia eta, horrela, zuzendu egin dela zenbait puntutan.

Bestalde, ohartarazi da euskaraz maiztasunaren irizpideak gauza gutxitarako balio digula kasu honetan, izenik gehienak autore jakin batzuenak baitira.

Azkenik, eztabaidari amaiera emateko eta proposamenen bat aurrera ateratzea zenez kontua, txostenean jasotzen diren irizpideak banan-banan eztabaidatzea eta bozkatzea proposatzen da. Horrenbestez, batzordeak aurkeztutako txostena hartu eta han jasotzen diren irizpideak bozkatu dira. 2.1. eta 2.6. zerbakiak jasotzen diren irizpideak batera doaz egiazki eta hala bozkatzea eskatzen da. Gehienetan zeharreko kasua proposatzen da iturri gisa. Honako hau izan da bozketaren emaitza: 15 boto alde eta 2, zuri.

Ondoren, 2.2.-ko irizpidea (*v* grafema eta hasierako *R*- errespetatzeari dagokiona) bozkatu da. Hemen ere hamabost boto izan dira proposamenaren alde.

2.3.-ko irizpide-proposamena bitan zatitu da bozketari begira. Batetik, *-tius/-tia* > *-(t)zio/-(t)zia*, eta bestetik, ea *n*, *l*, *r* kontsonanteen ondoren frikaria (*zio/zia*) behar den ala afrikatua (*-tzio/-tzia*). Frikari/afrikatu arazo hau dela eta, gainera, 2.3. puntuan jasotzea eskatu da *s* > *ts* bilakaerari dagokiona. Lehenbizikoaren bozketak 17 boto eman ditu batzordearen proposamenaren alde. Frikari/afrikatu delako hautuaz, berriz, 10 boto izan dira alde, 5, kontra eta 2, zuri. Beraz, batzordearen proposamena ontzat eman da.

2.4.-ko proposamenak (*litterae ramenses* direlakoan balioari dagokionak) ere 15 boto lortu ditu.

2.5. atalean proposatzen diren grafia egokitzapenak ere bozkatu dira. Hemen ere zatika joatea erabaki da.

y > *i* aldaketa egiteak 14 boto lortu ditu bere alde eta 2 ezezko.

ae, *oe* > *e* aldaketa egiteko proposamenak 16 boto izan ditu alde. Bat ere ez kontra. Gainerakoak, abstentzio.

ca, *co*, *cu* > *ka*, *ko*, *ku* aldaketaren alde 14 boto eman dira eta 2, kontra. X. Kintanak puntu honetan ezezko botoa eman duela jasotzeko eskatu du.

ce, *ci* > *ze*, *zi* eta *cae*, *coe*, *cy* > *ze*, *zi* aldaketa proposamenak 12 boto izan ditu alde eta 2 kontra.

qua > *kua* egokitzapenak alde, 13 eta kontra, 3. *Qui* > *ki* eta *que* > *ke* egitearen alde agertu dira 13 boto eta 2, kontra.

ch, ph, th, rh > *k, f, t, r(r)* aldaketaren alde 14 euskaltzainek eman dute botoa. Kontra, hiruk.

mm, nn, ll, pp, tt, ss, cc, cch > *m, n, l, p, t, s, k, k* puntuan, 15 boto izan dira alde, eta 2, kontra.

mp, mb > *np, nb*. 15 alde eta 2, kontra.

Hitz hasierako *S-* > *es-* bihurtzearen aldeko botoa eman dute 11 euskaltzainek eta kontra, lauk.

Azkenik, hirugarren puntuari dagokionez, hots, goi-mailako ikerketarako eta maiztasun urriko izenekin latinezko eta grekozko nominatiboa hartzeaz, 16 boto izan dira alde eta bat ere ez kontra. Argi gelditzen da, horrenbestez, jatorrizko formari hurbiletik jarraitzeko eskubidea beti ere hor dela.

Zatikako bozketa hauek egin ondoren bozketa orokorra proposatu da. Mitologia izenak dagokion batzordetik pasatu gabe daudenez, hurrengo bileran bozkatuko dira. Horrenbestez, mitologiako izenak alhora utzita, gainerako zerrenda eta irizpideak orokorrean bozkatu dira. Honako hau izan da emaitza: bai, 15 boto; gainerakoak abstentzio. Beraz, *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabaki-proposamena* onartua gelditu da, bozketan zehar egin diren zuzenketekin.

1.2.1. *Hiztegi batuko ihabali - irudi zerrenda onartzea.*

Zerrendaren eztabaidan sartu baino lehen, aurreko bileran zintzilik utzitako zenbait hitz jarri dira mahai gainean. Lehenbizikoa *hershailu/hesgailu* delakoa izan da. Batzordeak *hesgailu* onartzea proposatzen du, salbuespenik ez egitearren. Proposamen honen alde agertu dira euskaltzain guztiak.

Bigarren hitza *iaz/igaz* hautuari dagokio. Batzordeak *iaz* proposatzen du hobetsi beharreko formatzat. Kintanak datuak atlaseko emaitzekin kontrastean jartzea eskatzen du. Sarasolak dio literatur hizkuntza ez dela ahozko hizkuntza. Eta testuetako datuak erdi eta erdi dabilzala, nahiz eta azken aldian *iaz* ageri den nagusi. Botoetara jo da eta, batzordearen proposamenaren alde 14 euskaltzain agertu dira. Kontra, 3. Beraz, *iaz* forma onartu da.

Azkenik, *iduri* sarreraren azpian *ene iduriko* ere sartzea proposatzen du batzordeak, honako ohar hau duela: *Ipar. 'nire ustez'.*

Eztabaidatu beharreko zerrendari E. Knörrek, X. Kintanak eta A. Urrutiak egin dizkiote oharrak. Knörr jaunaren oharrak hartu dira lehenbizi aztergai.

Ihaurri hitza falta dela dio oharrak. Sartzea onartu du batzordeak eta baita euskaltzainek ere. Gauza bera gertatzen da *ikuska* hitzarekin. *Ikuska* adizlagun dela esango da.

Ike hitza bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Ikuzi hitza dela eta, Knörrek galdegiten du ea zergatik jarri behar zaion sarrera honi 'Ipar.' marka, Azkuek dioena kontuan hartuz. Nolanahi ere, botoetara jo da eta batzordeak ezarritako "Ipar." marka hori ezartzearen alde agertu dira 11 euskaltzain eta 6, kontra. Dagoen bezala uztea onartu da, horrenbestez. Nolanahi ere, "urez garbitu" esan nahi duela adieraziko da.

Ilenti formari lehentasuna ematea eskatzen du Knörrek. Datuak bestelakoak direla erantzun zaio eta ez da onartu.

Inbertsio hitzari buruz, 'Heg.' marka ezabatuko zaio eta 'Mat.' oharra erantsiko.

Inbidia sarreran 'Herr.' oharra ezartzea onartu da.

Inda hitza falta dela dio Knörrek. Hitz hau ez omen da ia inon ageri. Nolanahi ere, bigarren itzulirako utziko litzateke.

Indaba-ren ordez *indibaba* eskatzen du ohargileak. Ez da onartu baina 'Bizk.' dela erantsiko zaio sarrera horri.

Induljentzia hitzarendako *indulgentzia* idazkera eskatzen du Knörrek. Ez da onartu.

Inesibo bezalako hitzak egokiagoak dira bigarren itzulirako, ez honetarako. Hala erabaki da, ohargileak eskatutakoaren kontra.

Ingurebaki hitzarendako ere sarbidea eskatzen du ohargileak. Ez da onartu.

Ondoren, *ingurugiro* hitzaz sortu da eztabaida. Baina denbora faltaz, eguerdian Hendaiaiko udal agintariak harrera egin behar baitiote Euskaltzaindiari, bilera puntu honetan eten behar izan da.

Beraz, hamabi eta erdietan amaitutzat eman da egungo bilkura. Gaur utzitako puntuan hasiko da, hurrengoan, hiztegiko zerrendaren eztabaida.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga